

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea 05/2026 kreditu gehigarriaren espedienteari

Udalbatzak, 2026ko irailaren 3an egindako osoko bilkuran, hasierako onarpena ematea erabaki zuen 05/2026 zenbakiko kreditu gehigarriaren espedienteari.

Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatutako espediente hori hamabost egun baliodunez izango da jendaurrean iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onartuko da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da iragarki hau.

Ozaetan, 2026ko irailaren 4an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA